

52. atala: Taldean

Alexei I

52.1.- Jarri taldetan eta erantzun galdera hauei:

- Jasotako datuen arabera, zer gertatuko da hurrengo 48 ordutan ?
- Nor da Alexei komandantea? Bakarrik egonda zertan ematen du denbora?
- Zer iritzi du Tasiok xakeaz?
- Errusiarrek Tasiori zer proposatzen dio?
- Zergatik harritu da Kevin?

52.2.- Errusiarrek xakean aritzeko ohitura dute. Ez dago gaizki, baina euskaldunok pauso bat aurrerago joan gara: musean aritzen gara. Gaur gelan, binaka edo launaka jarrita, musean arituko gara.

Horretarako,

- a) Lehenengo karten izenak ikasiko ditugu. Euskaraz lehenengo karta zenbatekoa den esaten dugu, eta gero zer palotakoa den:

Seiko urrea, bateko ezpata, txota (txanka) bastoia, zaldun (zaldi) kopa

Idatzi karta hauen izenak:



- b) Orain, musean aritzeko joko-arauak ikasiko ditugu. Erreparatu hitz hauei:

Tantoak: tantoak, hamarrekoak.

Atalak: handia, txikia, pareak, jokoa, puntua.

Jokatze: paso/ba, enbido, bi/hamar gehiago, eduki, hordago.

Kontatzeko: handiko/txikiko bi, handia/txikia pasoa, pareak bat, mediak bi, dupleak hiru, hogeita hamaika hiru, jokoa bi, puntua bat.

52. atala: Taldean

Hemen duzu adibide bat:



Handia	- enbido	- eduki
Txikia	- ba	- ba
Pareak	- pareak, bai - ba - eduki	- bai -enbido
Jokoa	- jokorik, ez	- bai

1. jokalaria: txikia pasoa, paretako bi=3 eta mediak=5

2. jokalaria: handiko bi eta hogeita hamaika hiru=5

Orain zuen txanda da. Jarri binaka edo launaka eta jokatu partida bat, eta, animatzen bazarete, antolatu txapelketa bat gelan.



Irakaslearentzako oharra: musean ez dakiten ikasleek ikusle gisa har dezakete parte. Komeni da, nolani ere, aldez aurretik jokoaren arauak azaltzea.

Ikasbileko fitxa: [2363119](https://www.ikasbil.eus)



52. atala: Taldean

Jokalari batek bere kartak bikotekideari jakinarazteko, badakizu keinuak erabiltzen? Lotu itzazu irudiak eta azalpenak. Ezagutzen badituzu lotu adierazten duenarekin, eskuineko zutabearekin. Ezagutzen ez badituzu, gero argituko duzue.



Begiak itxi



Beheko ezpainaren ertz batean hozka egin




Beheko ezpainaren erdialdean hozka egin.



Mihia atera ahoaren erdialdetik.



Mihia atera ahoaren ertz batetik.



Ezpainak ahoaren alde batera estutu



Bekainak jaso



Begi batekin keinu egin



Ahoarekin zirkulu bat egin (musu bat)

Mediak (hiru karta berdin):

Hiru errege eta bateko bat:

Ez pare eta ez joko

Hiru errege

Bi errege

Bi bateko

Hiru bateko

Dobleak (bi pare)

31 puntu

Transkripzioa: Alexei I (03:08)

T- Bere orbitatik desbideratu den asteroide baten berri eman zigutek Iurretatik.

K- Eta? eraginik izango du Trebiñu II-n?

T- Ez zegok arriskurik, baina eraginik izango ote duen ez zegok jakiterik.

K- Inork aztertu al du asteroide horren grabitate-erakarpenak sortu dezakeen espazio-denboraren pertzepzio-eraldaketa?

T- Zertaz ari haiz?

K- Ez nago ziur, baina datu guztiak ikusita, datozen 48 orduetan Trebiñu II espazio-denbora ardatz berri batean sartuko da, eta ondorioak ezezagunak dira.

A- Trebiñu II! Trebiñu II, Hemen MIR 8 espazio-estazioa deika... Mir 8 Trebiñu II-ra deika!

T- Hemen Trebiñu II. Sarasola ortzinauta. Norekin ari naiz hizketan?

A- Alexei komandantea naiz. MIR 8-ko kosmonauta. Asteroide ezezagun baten eraginez zuen orbitan sartu da MIR 8a.

K- Istripu arriskurik?

A- нет (niet). gure ibilbidean zuzenketak egin ditut, eta zuen albotik pasako naiz.

T- Pozten naiz hori entzuteaz.

A- Zuei eragin al dizue nolabait asteroidearen gertutasunak?

T- Guk ez dugu inolako aldaketarik sumatu.

A- A! gustua ematen du norbaitekin hitz egin ahal izateak. Ia sei hilabete daramazkit MIR 8an bakarrik.

K- Eta nola daramazu bakardadearen kontu hori?

A- Sei hilabete daramatzat xakean nire buruaren kontra jokutzen.

T- Xakean?

A- да (da)! Hori esan dut.

T- Gustura jokatu nuke nik zurekin partida bat.

A- Baina, zuek bi zarete...

T- Baina, honek ez daki xakera jokutzen.

K- Argi dago espezie berekoak zaretela. Lagunik ezean xakera beren buruarekin jokutzen duten horietakoak.

A- Azken bi asteotan Fischer eta Spaskik Reykjaviken jokatu tuko txapelketa ari naiz pausoz-pauso jokutzen.

T- Zergatik ez ninduten ni nazioarteko operazio batean bidali zu bezalako ortzinautarekin.

A- Ortzi zer?

T- Kosmonauta esan nahi nuen.

A- Aizu, eta gure espazio-estazioak bata bestearengandik hain gertu daudela probestuaz... zergatik ez naiz bertaratzen aurrez aurre xake-partida bat jokatzeko?

T- Hori egingo al zenuke?

A- Asperraldiari aurre egitearren edozer gauza egingo nuke.

T- Bada, niregatik primeran!

A- Justu 24 ordu barru zuen aldamentetik pasako naiz.

T- Ordurako prestatuko ditut nik xake-piezak eta tableroa.

A- Primeran! Spasiva, Tovarich Sarasola!

T- Johnson, Alexei bihar gure Espazio-estaziora etorriko duk xake-partida bat jokatzera.

K- Aizu, Tasio, ez al zaizu arraroa iruditzen?

T- Zer?

K- Zure lagun errusiar horrek euskaraz hitz egiten zuen.



T- Hara, bada, ez diat horretan pentsatu.

K- Oso gauza arraroak ari dira gertatzen, Tasio.

52. atala: Taldean

TREBIÑU II

Zuzenketa



Begiak itxi

Beheko ezpainaren ertz batean hozka egin

Beheko ezpainaren erdialdean hozka egin.

Mihia atera ahoaren erdialdetik.

Mihia atera ahoaren ertz batetik.

Ezpainak ahoaren alde batera estutu

Bekainak jaso

Begi batekin keinu egin

Ahoarekin zirkulu bat egin (musu bat)

Mediak (hiru karta berdin):

Hiru errege eta bateko bat:

Ez pare eta ez joko

Hiru errege

Bi errege

Bi bateko

Hiru bateko

Dobleak (bi pare)

31 puntu

52. atala: Taldean

Erantzunak

52.1-

- Trebiñu II espazio-denbora ardatz berri batean sartuko da.
- MIR 8ko kosmonauta da. Bakardadeari aurre egiteko bere buruarekin jokatzen ditu xake-partidak.
- Oso gustukoa du. Xake-partida bat gustura jokatuko lukeela aipatzen dio errusiarrari.
- Bera Trebiñu IIra joan eta xake-partida aurrez aurre jokatzea.
- Errusiarra euskaraz mintzatu zaiolako Tasiori.

52.2.-

				
seiko bastoia	hiruko kopa	errege bastoia	bateko urrea	txanka edo txota urrea

- **Bi errege:** beheko ezpainaren erdialdean hozka eginez.
- **Hiru errege:** beheko ezpainaren ertz batean hozka eginez.
- **Bi bateko:** mihia atera ahoaren erdialdetik.
- **Hiru bateko:** mihia atera ahoaren ertz batetatik.
- **Mediak (hiru karta berdin):** ezpainak ahoaren alde batera estutu.
- **Dobleak (bi pare):** bekainak jasoz.
- **31 puntu jokoan:** begi batekin keinu egin
- **30 puntuan:** sorbaldak jaso (edo begi batekin keinua egin zenbaitetan)
- **Itsu (ez pare eta ez joko):** begiak itxi
- **Hiru errege eta bateko bat:** ahoarekin zirkulu bat eginez (musu bat); hala ere, hau ez dago lar zabalduta